

Jarri dute abian Kooperatibagintzan Aditu Tituluaren 9. edizioa

2016/10/17

Pasa den urriaren 14an jarri zuten abian Kooperatibagintzan Aditu Tituluaren 9. edizioa. Aurtengo edizioan, 14 kooperatiba desberdinetatik etorritako 25 lagunek hartuko dute parte, gehienak organoetako kideak. Ikastaroaren aurkezpen ekitaldia Eskoriatzako campusean egin zuten, baina, eskolak emango dituzten, ostiralero, Aretxabaletako Otaloran. Orain hasi den ikastaroa bukatuko da 2017ko martxoaren 31n.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki ikertegiak koordinatzen duen aditu titulu honetan, dagoeneko, 25 kooperatibetatik etorritako 152 kidek hartu dute parte aurreko ediziotan.

Ikastaroaren helburua da, batetik, indartea biziberritze kooperatiborako estrategiak eta prestatzea bultzatuko dituzten eragile kooperatiboak, eta, bestetik, janztea kooperatibetako proiektu sozialean trakzio lanak egingo dituzten pertsonak, beren eremuetan eragin biderkatzailea izan dezaten.



Aurtengo ikasturteko parte-hartzaileak aurkezpen egunean.